

ANTSOAIN
Deialdia, Antsoaingo Udaltzaingoko 2 udaltzain lanpostu, oposizio bidez eta txanda irekian, betetzeko

Antsoaingo Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko urriaren 7an, ondoko deialdi hau onestea erabaki zuen. Hona hemen oinarriak:

OINARRIAK

1. oinarria.-Arau orokorrak.

1.1. Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean, Polizia Kidegoetako Langileen Erregelamenduan, gainerako aplikazio arauetan eta deialdiaren oinarrietan xedatutakoari jarraituz eramanen da aurrera deialdi hau. Bere xedea Antsoaingo Udaleko udaltzain izateko 2 lanpostu, oposizio bidez eta txanda irekian, betetzea da. Lanpostuak honelaxe agertzen dira 2009ko plantilla organikoan:

1.-4009 Kodea: udaltzaina, 3. hizkuntz eskakizunekoa.

2.-4015 Kodea: udaltzaina, hizkuntz eskakizunik gabekoa.

2. oinarria.-Aplikatu beharreko araudia.

Prozedura hau arau hauen mende egonen da: Nafarroako Polizieiei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea; Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua; Nafarroako administrazio publikoetako lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretua; aplikatzekoak diren gainerako arauak eta deialdi honetako oinarriak.

3. oinarria.-Izangaien betebeharrak.

2.1. Oposizio honetan txanda irekian onartuak izateko, izangaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

b) Adinez nagusi izatea eta 35 urte, gehienez ere.

c) Batxilertitulua, Bigarren Mailako Lanbide Heziketaren titulua edo baliokideren bat izatea. Hala ere, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean xedatutakoari jarraituz, polizia gisa sartzeko nahiko izanen da eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea izatea, halako moduz non, sartzeko prestakuntza ikastaroa, Nafarroako Segurtasun Eskolak emanikoa, gaindituta, teknikoki baliokideak izanen baitira oinarritzko ikastaro hori eta batxilergoa, bigarren mailako lanbide heziketa edo horien baliokidea; baliokidetasun hori, hala ere, ondorio administratiboetarako baizik ez da izanen, hau da, udaltzain edo Polizia Kidegoko C mailako funtzionario izendatzeko, eta ez du baliorik izanen ez arlo akademikoan, ez irakaskuntzaren edo hezkuntzaren arloan, ezta Administrazioaren beste esparru batzuetako maila horretako lanpostuak betetzeko ere.

d) Beren egitekoa betetzeko behar diren gaitasun fisiko eta psikikoak izatea, eta deialdiaren 3. eranskinean ageri diren bazterbide medikoetan ez egotea.

e) Gizasemeek 1,65 metroko altuera, bederen, eta emakumezkoek 1,60 metrokoa izatea.

f) Dolozko delitu bat dela kausa kondenatua ez izatea, ezta administrazio publiko baten zerbitzuetatik baztertua ere, eta eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauari jarraikiz.

g) Gutxienez A, B eta BTP motako ibilgailuak gidatzeko baimenak izatea.

h) Aldean armak eramateko eta, behar denean, erabiltzeko konpromisoa. Eskatzailearen aitoren bidez adieraziko da. Agente nahiz udaltzain izendatzen diren izangaien kasuan bakarrik.

Txanda irekiko 3. hizkuntz eskakizuneko udaltzain lanpostura aurkezten direnek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, aipatu beharkizunetz gain, honako hau ere eduki beharko dute:

i) E.G.A. titulua eta baliokidea. Dokumentazio hori aurkezten ez dutenek eskabidean agertu beharko dute prest daudela NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eginen duen probara aurkezteko, euskaraz ote dakiten frogatzeko; horrelakorik egin ezean prozesutik kanpo geldituko dira.

2.2. Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako bete beharko dira aurreko baldintzak, g) letrakoa salbu, hori oinarritzko prestakuntzaren ikastarorako izangaien behin-behineko zerrenda jendaurrera ateratzen denerako bete beharko baita, deialdi honen 5.2.2 oinarrian ezarri bezala.

4. oinarria.-Eskabideak.

4.1. Deialdian parte hartu ahal izateko eskabideak Antsoaingo Udalaren erregistro orokorrean beharko dira aurkeztu (Udaletxe plaza, 1), edo Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean arautzen diren bideetako bat erabilita, hogeita hamar egun naturaleko epean aurkeztu ere, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Aipatu eskabideak deialdi honetan argitaratutako ereduari lotuko zaizkio, eta haietan izangaiek adierazi beharko dute oposizioan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko ezarritako epea amaitu baino lehenago. Eredua Antsoaingo Udaleko Herritarrendako Laguntza Zerbitzuan eskura daiteke, edo Interneten, www.ansoain.es webgunean.

Txanda irekiko 3. hizkuntz eskakizuneko udaltzain lanpostura aurkezteko eskabidea egiten duenak, 2.1 oinarriko i) atalean zehaztutako beharkizunak betetzen dituztela ere aurkeztu beharko dute.

4.2. Izangaiek ekarri beharreko gainerako dokumentazioa:

Bat.-Osasun ziurtagiri ofiziala, III. eranskinean agertzen diren proba fisikoak egiteko gaitasuna duela egiaztatzen duena.

Bi.-Nortasun Agiri Nazionalaren bi aldeen fotokopia konpultsatua.

Hiru.-Deialdi honetan eskatzen den titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.

Lau.-EGA tituluaren edo haren baliokidearen fotokopia konpultsatua.

4.3. 4.1 eta 4.2 ataletan aurreikusitakoa betetzen ez bada, izangaia kanporatuko da.

4.4. Eskaerak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

4.5. Eskaeran atzematen diren akats materialak edo egitezkoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi ere.

5. oinarria.-Onartuen behin-behineko zerrenda, erreklamazioak eta behin betiko zerrenda.

Parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaituta, alkateak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko, ohartaraziz hurrengo hamar egun baliouduneko epean interesdunek erreklamazioak egin ditzaketela organo dei egileari zuzenduak eta, akatsik baldin badago, haiek zuzendu.

Erreklamazioak egiteko epea bukatu eta haiek ebatzitakoan, alkateak ebazpena emanen du onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Antsoaingo Udalaren web orrian argitaratzeko aginduko du: www.ansoain.es.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda eta behin betikoa interesdunen eskura egonen da une oro Antsoaingo Udalaren web orrian: www.ansoain.es.

6. oinarria.-Epaimahaia.

6.1. Kide hauek osatuko dute epaimahaia:

-Mahaiburua: Antonio Gila Gila, Antsoaingo Udaleko alkate udalburua.

-Ordezkoa: Jesús Esteban Lainez, Antsoaingo Udaleko lehen alkateordea.

-1. mahaikidea: Carlos Ceballos Itoiz, Antsoaingo Udaltzaingoko burua.

-Ordezkoa: Alfredo Pérez Garde, Antsoaingo Udaltzaingoko kaboa.

-2. mahaikidea: Pablo Salvatierra Beorlegui, Zizur Nagusiko Udaltzaingoko burua.

-Ordezkoa: Alfredo Ondarra Ramos, Zizur Nagusiko Udaltzaingoko kaboa.

-3. mahaikidea: Francisco Ataun, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

-Ordezkoa: Miguel Goñi Ros, Iruñeko Udaltzaingoko komisarioa.

-4. mahaikidea: Pedro Herrera Triguero, Antsoaingo Udaleko funtzionarioen delegatu sindikalen ordezkaria.

-Ordezkoa: Antonio Chaves Muñoz, Antsoaingo Udaleko funtzionarioen delegatu sindikalen ordezkaria.

-Mahaikide-idazkaria: Begoña Olascoaga Echarri, Antsoaingo Udaleko idazkaria (hizpidea duela baina botorik ez).

-Ordezkoa: Jesús María Llorens García, Berriobeitiko Udaleko idazkaria (hizpidea duela baina botorik ez).

6.2. Eraketa eta jarduna.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratu ondoko bost eguneko epean eratu da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta mahaikide-idazkariak edo haien legezko ordezkoez bertan egon beharko dute.

Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak aplikatzeko moduz sortzen diren arazo guztiak.

Administrazio prozeduraren arauetan aurreikusitako abstentziorako arrazoiren bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta hori jakinarazi deialdia egin duen organoari.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzera, egoera horietako bat gertatzen denean.

Epaimahaiak aholkulari adituak hartzen ahalko ditu. Aholkulari horiek dagokien espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta epaimahaiari horietan baizik ez diote lagunduko.

7. oinarria.-Oposizioa nola eginen den.

7.1. Oposizioa 2009ko urrian hasiko da.

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean berean finkatuko dira ariketak hasteko tokia, eguna eta ordua.

7.2. Oposizioak hautapenaldia izanen du lehenik, eta horretan probak baztergarriak izanen dira, kultura orokorraren eta egoera fisikoaren ingurukoak, psikoteknikoak eta medikoak, eta, bigarren aldira, oinarritzko ikastaro bat gainditu beharko da.

7.3. Hautapenaldiko proba bakoitza zuzendu ondoren, epaimahaiak jendaurrean jarriko du Udalaren iragarki oholean gainditu duten eta baztertu diren izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, Antsoaingo Udalaren web orrian: www.ansoain.es, aditzera emanen du hurrengo proba zein toki, egun eta orduan eginen den, eta hori gutxienez berrogeita zortzi ordu lehenago egin beharko du.

7.2.1. Hautapenaldia:

Hautapenaldian proba hauek izanen dira:

a) Lehenbizikoa.-Bi ariketa egin beharko dira, test motakoak, deialdi honetako II. eranskinean azaltzen diren hiru gai-multzoei buruz.

b) Bigarrena._Deialdiko III. eranskinean azaltzen diren ariketa fisikoak egin beharko dira, eta haietako bakoitzak balioko du jendea baztertzeko, egiten den markaren arabera. Epaimahaiak ezartzen duen hurrenkeran eginen dira proba horietako ariketak.

Horietan izangaiei altuera neurtuko zaie, 3.1.e) atalean eskatutako baldintza betetzen duten egiaztatzeko.

Izangai guztiak antidopin kontrola egitera behartuta egonen dira, ariketak egin bitartean edo beste noiznahi, epaimahaiak hala eskatuz gero. Praktika debekatuak atzeman edo egiaztatzeko analisiak dagokion organo espezializatuak eginen ditu. Horrenbestez, debekatuta daude Kiroletako Kontseilu Gorenak 2008ko abenduaren 19an emandako Ebazpenaren I. eranskinean ageri diren substantzia, gai farmakologiko, dopin metodo eta manipulazioak (kirolean debekatutako substantzien eta metodoen zerrenda, 2009ko 1. Estatuko Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 1ean, argitaratua) eta, bestalde, indarra dute Kiroletako Kontseilu Goreneko Lehendakariak kirolean debekatuta dauden metodo eta substantzien zerrenda onesteko 2006ko abenduaren 21ean emandako Ebazpenaren IV. eta V. eranskinek (animaliengan, galgoengan eta lehiaketa hipikoetan debekaturik dauden substantzien eta metodoen zerrendak dituztenak, hurrenez hurren), Osasuna Babesteari eta Kiroleko Dopinaren kontra borrokatzeari buruzko azaroaren 21eko 7/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren babesean. VI. Eranskinak ere indarrean segituko du, kirolean dopina erabiltzearen kontrako UNESCOren Nazioarteko Konbentzioaren II. Eranskinari aurka egiten ez dion guztian. Bazterturik geldituko dira kontrol horretan emaitza positiboa ateratzen duten izangaiak eta, orobat, kontrola egitea onartzen ez dutenak.

c) Hirugarrena.-Ondoko proba hauek egin beharko dira:

a) Hainbat proba psikotekniko eginen dira, izangaiak lanpostuaren profil profesionalaren eskakizunetara zenbateraino egokitzen diren zehazteko. Proba hauek NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu eta haren balorazioak lotesleak izanen dira epaimahaiarendako.

Probak egin aurretik Araubide Juridikoaren eta Langileriaren Zerbitzuko zuzendariak lanpostuaren profil profesionala proposatuko dio alkateari, onetsi dezan. Onespena epaimahaiari jakinaraziko zaio.

b) Proba bat, txanda irekiko 3. hizkuntz eskakizuneko udaltzain lanpostura aurkezten direnendako bakarrik izanen dena, betiere EGA edo haren baliokidea dutela frogatu ez dutenendako, izan ere NAPI-Nafarroako

Administrazio Publikoaren Institutuak hizkuntz eskakizuna betetzen dutela frogatzeko proba bat prestatuko du, euskararen 3. hizkuntz eskakizuna betetzen ote duten jakiteko. Prozesutik kanpo geldituko dira proba hau egiteari uko egiten diotenak.

d) Laugarrena.-Buruz buruko elkarrizketa epaimahaikoekin, lanpostuarekin ikusteko duten gaien gainean, gehienez ere ordu erdiz. Gehienez ere, 10 puntu.

Proba hau bukatuta, epaimahaiak aditzera emanen du bai Udalaren Iragarki Oholean bai Antsoaingo Udalaren web orrian (www.ansoain.es) azterketa gairitu ondoren txanda irekiko bi izangaien zerrenda, zein bere plantilla organikoko lanpostuan, hizkuntz eskakizunekoan nahiz gabekoan; bestetik ere, bete gabe daudela behin betiko erabakia har dezake, haietara aurkeztutako inork ere gairitzen ez badu.

Ebazpenean berean, azterketa gairitu duten izangaiei dei eginen die osasun azterketak egin ditzaten eta ondotik Segurtasun Eskolak eman beharreko oinarritzko prestakuntzako ikastarora ager daitezten.

e) Osasun azterketak.-Deialdiko bi lanpostuak lortu dituzten izangaiek, eta deialdiko 7.2.4 oinarriko prestakuntza oinarritzko ikastarora behin-behinekoz onartu badira, behar diren osasun azterketak egin beharko dituzte 3.1 ataleko d) hizkian ezarritako gaitasun psikofisikoa egiaztatu ahal izateko.

Delako osasun azterketa Antsoaingo Udaleko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko entitate arduradunak egingen du.

Hautapenaldiko probetarako deialdi bakarra egingen da eta izangaiek Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo gidabaimena aldean dutela agertu beharko dute. Oposiziotik bazterturik geldituko dira adierazten diren egun, ordu eta tokietan agertzen ez diren izangaiek, arrazoia edozein dela ere.

7.2.2. Dokumentazioa.

Oinarritzko prestakuntza-ikastaroan parte hartu ahal izateko, ikastaro horretarako onartutakoen zerrenda Antsoaingo Udaleko iragarki oholean jendaurrean jarri eta handik hamabost egun naturalean, izangaiek frogatu beharko dute deialdiaren 3.1 ataleko f), g) eta h) baldintzak betetzen dituztela. Horretarako, ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko dute Antsoaingo Udaleko Erregistro Orokorrean, epaimahaiko idazkariari zuzendua:

-Deialdian eskatutako gidabaimenen aurreko eta atzeko aldean fotokopia konpultsatua.

-Erantzukizuneko aitortpena, adierazteko ez dela dolozko delitu bat dela kausa kondenatua izan, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua, eta eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez dagoela, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauak jarraikitzen.

Udalak Justizia Ministerioaren Zigortu eta Auzi-iheslarien Erregistro Nagusiari eskatuko dio izangaiek aurrekari penalik ez dutela edo horiek deuseztu direla frogatzen duen agiria eta ofizioz erantsiko dio espedienteari.

-Zin egin edo hitz ematea, Nafarroako Foru Eraentza errespetatu, Konstituzioari eta Legeei men egin, eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

-Arma aldean izateko konpromisoa hartzeko erantzukizuneko aitortpena.

-Gizarte Segurantzaren txartelaren fotokopia konpultsatua.

Epaimahaiak, ikusirik izangaiek aurkeztutako dokumentazioa eta azterketa medikoaren emaitzak, hautapen prozesuan sortutako bajak ezarriko ditu, eta baja haiek bazterturik gelditu ez diren beste izangai batzuekin beteko ditu, betiere proba medikoak gairitu eta eskatutako dokumentazioa aurkezten badute. Hori egindakoa, oinarritzko prestakuntza-ikastarora onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

7.2.3. Praktiketako funtzionarioen izendapena.

Agente nahiz udal agente izateko oinarritzko prestakuntza-ikastaroan parte hartzen duten izangaiek Udaleko praktiketako funtzionario izendatuko dira, aurretik udal horietako funtzionarioak direnak izan ezik.

Udalak izangaiek atxikiko dizkio Nafarroako Segurtasun Eskolari eta izendapenak egingen ditu.

Zenbat lanpostu deitu diren, kopuru horrek berak hartuko du parte agente nahiz udal agente izateko oinarritzko prestakuntza-ikastaroan.

7.2.4. Agente nahiz udal agente izateko oinarritzko prestakuntza-ikastaroa:

Oinarritzko prestakuntza-ikastaroa Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen du, gairitu egin beharko da eta Nafarroako Segurtasun Eskolaren antolamendu eta funtzionamendurako Erregelamendua onesten duen irailaren 12ko 113/2005 Foru Dekretuan eta aplikagarriak diren gainerako xedapenetan haren gainean dauden aginduek gobernaturiko dute.

Izangaiek, prestakuntza-ikastaroak dirauen bitartean, C mailaren hasierako soldatari dagokion lansaria jasoko dute, bai eta, hala badagokie, familia laguntza ere.

Bestetik, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatuko dira eta alta emanen zaie, salbu eta lehendik Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen eskubide pasiboen beste araubide batean afiliatuta zeudenak, horrexetan segituko baitute.

Praktiketako funtzionario izateak ez du lortu nahi den lanpostuari dagokion eskubiderik ematen.

Ikastaroan baja emateak oposizioaldian jarraitzeko eskubidea eta praktiketako funtzionarioaren izaera galtzea ekarriko du berekin. Gertatzen denean, deialdia egin duen organoari jakinaraziko zaio. Baja hori epaimahaiak dagokion udalari jakinaraziko dio.

Oinarrizko prestakuntza-ikastaroan behin betikoz onartuak izan baino lehen egindako azterketa medikoaz gain, ikastaroa bitartean edo hura bukatutakoan izangaiek agintzen zaizkien proba mediko guztiak pasatu beharko dituzte, deialdiaren 3.1 d) atalean aipatzen den baldintza betetzen segitzen dutela frogatzeko. Proba horien bidez egiaztatzen bada baztertzeko arrazoirik badela, epaimahaiak izangai horiek hautapen prozesutik kentzeko aginduko du; ondorioz, praktiketako funtzionario izateari utziko zaio.

Prestakuntza-ikastaroa gainditu duten izangaiek, eta hautapen prozesuan gaitasun psikofisikoa galtzeagatik baja eman ez bazaie, praktiketako funtzionarioak izaten segituko dute lanpostuaz jabetu arte.

8. oinarria.-Oposizioko proben eta agente nahiz udal agente izateko oinarrizko prestakuntza ikastaroaren balorazioa.

8.1. Lehenbiziko proba: test moduko ehun galdera erantzun beharko dira, hiru erantzunen artean aukeratuz; haietako berrogeita hamar Legeriari eta Nafarroako Erakundeei buruzkoak izanen dira, hogeita bost Zientziari buruzkoak eta beste hogeita bost Hizkuntzari buruzkoak.

Ongi erantzundako galdera bakoitzak puntu bateko puntuazioa izanen du. Erantzun oker bakoitza zehatuko da eta 0,25 puntu kenduko.

Galdera bakoitzak erantzun zuzen bakarra izanen du.

Baztertu eginen dira ariketa guztien emaitzak batuta gutxienez ere berrogeita hamar puntu lortzen ez dituzten izangaiek, edo horietako edozeinetan zero puntu lortzen dutenak.

8.2. Bigarren probako ariketa fisikoetan izangaien kalifikazioa "gai" edo "ez gai" izanen da, III. eranskinean ezarritako gutxienekoak gainditzen badituzte edo ez.

Ariketaren batean "gai" kalifikazioa lortzen ez dutenak eta dopina galarazteko kontroletan positiboa ematen dutenak baztertuko dira.

8.3. Hirugarren proba, psikoteknikoa, NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak eginen du, eta 0 puntutik 60ra bitarte lor daitezke. Bazterturik geldituko dira gutxienez hogeita hamar puntu eskuratzen ez dituzten izangaiek.

7.2.1. hirugarrena izeneko ataleko hizkuntz eskakizuna frogatzeko proba, 3. hizkuntz eskakizuneko lanpostura aurkezten direnek egin beharrekoa, NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan eginen da, euskarazko 3. hizkuntz eskakizuna betetzen ote duten jakiteko. Izangaiei "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen zaie. Bazterturik geldituko dira "ez gai" lortzen dutenak.

8.4. Laugarren proba, buruz buruko elkarrizketa, oposizioko epaimahaiak eginen du. Gehienez ere 10 puntu lor daitezke, aurretik eginiko probetan lortutakoei gehituko zaizkienak.

8.5. Hautatze aldiko aipatu probetan ateratako puntuazioen batura izanen da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

8.6. Osasun azterketetan izangaiei "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen zaie. "Gai" kalifikazioa lortzen ez dutenak bazterturik geldituko dira.

8.7. Agente edo udal agenteendako oinarrizko prestakuntzako ikastaroan izangaiei "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen zaie. Kalifikazio hori Nafarroako Segurtasun Eskolak emanen du eta epaimahaiarentzat loteslea izanen da.

9. oinarria.-Agenteen nahiz udal agenteen izendapena, jabetza hartzea eta bizilekuaren gaineko betebeharra.

9.1. Izendapena.

Eskatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren, Udaleko alkateak funtzionario izendatuko ditu, eta Udalaren agente edo udal agente, oposizioa gainditu duten bi izangaiek; nor plantilla organikoaren bere lanpostuan, alegia, hizkuntz eskakizunekoan nahiz gabekoan.

Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

9.2. Lanpostuaz jabetzea.

Izangaiek izendapenean zehazten den egunean jabetu beharko dute lanpostuaz.

Agente nahiz udal agente lanpostuaz jabetzeak berarekin ekarriko du praktiketako funtzionario izateari uztea.

Ezarritako egunean lanpostua hartzen ez dutenek kasuan kasuko udalean sartzeko eskubide guztiak galduko dituzte, ezinbesteko kasuetan gertatu denean izan ezik.

Hautaprobak gainditu eta deialdiaren xede diren lanpostuetarako izendatuak izan ondoren, dagokien udalean sartu eta funtzionario bihurtzen diren izangaiek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean afiliatu eta alta emanen zaie araubide horren babesean, salbu jadanik afiliaturik badaude edo Nafarroako Administrazio Publikoetako Eskubide Pasiboan eta Osasun eta Gizarte Laguntzako beste araubide batean izena emanak badira; orduan, eta izendatu aitzin, babes araubide horretan segitzea aukeratzen ahal dute edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean afiliatzea.

9.3. Bizilekuaren betebeharra.

Izendatutako izangaiek destinoa duten herrian bertan bizi beharra dute; horretarako, udalerrri horretan finkatuko dute bizilekua.

10.-Errekurtsoak.

Deialdi honen, bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetako bat aurkeztea aukeratzen ahal da:

- Berraztertze errekurtsua, egintza burutu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Antsoainen, 2009ko urriaren 7an.-Alkatea, Antonio Gila Gila.

1. ERANSKINA

Izen-abizenak:, adinez nagusia, NAN zenbakia (edo baliokidea):, jaioteguna:, jaioterria: (.....), nazionalitatea:, gaurko helbidea: (.....), kalea:, zenbakia:....., solairua:, hizkia:, posta kodea: telefonoa:, lantokiko telefonoa:, sakelakoa:, postazko helbidea:

ADIERAZTEN DU:

-Onartua izatea eskatzen dudala Antsoaingo Udaleko Udaltzaingoko 2 lanpostu, oposizio bidez eta txanda irekian, halako modalitatean:

? udaltzaina, hizkuntz eskakizunik gabekoa.

? udaltzaina, 3. hizkuntz eskakizunekoa.

-Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasunik edo akats fisikorik nahiz psikikorik.

-Indarra duten xedapenetan ezarritako baterazintasunerako arrazoirik ez dudala.

-Dolozko delitu bat dela kausa ez naizela kondenatua izan, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik baztertua ere, eta ez naizela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako arauetara jarraituz.

-Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

-EGA titulua edo baliokidea badudala.

-Ez dudala ez EGA ez haren baliokidea, eta beraz, eskatzen dudala NAPI-Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan eginen den euskarazko proba onar nazatela.

-Eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala, 3.1 eta 3.2. oinarriekin bat.

-Antsoaingo Udalari baimena ematen diodala deialdiko 7.2.2. oinarriko ziurtagiria eska dezan.

Horrenbertzez,

Eskabide hau ontzat har dadila eta aipatu deialdian onar nazatela eskatzen dut.

Antsoainen, 2009koaren(e)an.

Datuen babesak. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa bete dadin, aditzera ematen zaizu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hautapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Antsoaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeke eta haien aurka jotzeko eskubideak Antsoaingo Udalari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu, Erregistro Orokorreara joz (Udaletxeko plaza, 1; 31013-Antsoain).

(Sinadura)

ANTSOAINGO UDALEKO ALKATE UDALBURUA.

2. ERANSKINA

LEHEN PROBARAKO GAI ZERRENDA

1.-Legeria.

1.1. Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea.

1.2. Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa.

1.3. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua: V. titulua: Administrazioaren xedapenak eta egintzak. VI. titulua: Administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorrak: VII. titulua: Egintzen berrikuspena administrazio bidean; administrazio errekurtsioak.

1.4. 1398/1993 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, Zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duena.

1.5. 429/1993 Errege Dekretua, martxoaren 26koa, Administrazio Publikoen ondareko erantzukizunaren prozedura onesten duena.

1.6. Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa; atariko titulua: "Zigor-bermeak eta zigor-legearen aplikazioa", I. titulua: "Arau-hauste penala", II. titulua: "Delitu eta faltei dagokienez erantzukizun kriminala duten pertsonak", eta III. titulua: "Zigorrak".

1.7. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

1.8. 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa: I. titulua: Udalerria, Nafarroako toki entitate. III. titulua: Nafarroako toki entitateen funtzionamenduaren araubidea.

Herritarrendako informazioa eta haien parte-hartzea. IX. titulua: Nafarroako toki entitateen jarduketak: prozedura eta araubide juridikoa, inpugnazioa eta kontrola. Bereziki Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendutako gora jotzeko errekurtsioa (279/1990 Foru Dekretua, urriaren 18koa).

1.9. 2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, Ikuskizun Publikoak eta Josteta Jarduerak arautzen dituena. 201/2002, irailaren 23koa, Ikuskizun Publikoen eta Josteta Jardueren ordutegia arautzen duena. 135/1989 Foru Dekretua, ekainaren 8koa, zarata eta dardarek sortzen dituzten jarduerak bete beharreko baldintza teknikoak ezartzen dituena.

1.10. Antsoaingo Udal Ordenantzak; Trafikoaren Ordenantza eta eremu publikoarena.

Oharra.-Zein egunetan argitaratzen den deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean, egun horretako legeriaren arabera eskatuko dira gai guztiak.

2.-Zientziak.

2.1. Ekologia: faktoreak, esku-hartzea, ekosistemak, oreka biologikoa. Natura zaintzea.

2.2. Mugimendua: mota desberdinen azterketa problemak ebazteko aplikaturik.

2.3. Indarrak, masa eta azelerazioarekin lotuta. Indar unitateen erabilera.

2.4. Lana, potentzia, energia eta makinak. Problemetarako aplikazioa.

2.5. Berotasunaren azterketa eta makina termiko batzuetarako aplikazioak.

2.6. Elektrizitatea: motak, unitateak, zirkuitu baten osagaiak eta korrante elektrikoaren efektuak.

2.7. Materiaren egitura atomikoa eta molekularra.

2.8. Zatikia. Eragiketarako aplikazioak.

2.9. Proporzionaltasuna. Hiruko erregela bakun eta konposatua, ehuneko hainbat, banaketa proporzionala eta interes bakuna eta interes konposatua.

2.10. Nazioarteko neurri sistema.

2.11. Geometria: planoak, poligonoak. Ariketa praktikoak.

2.12. Geometria: espazioa, poliedroak, piramidea, konoa, esfera. Ariketa praktikoak.

3.-Hizkuntza.

3.1. Substantiboaren, adjektiboaren eta aditzaren morfologia. Esaldi bakunaren sintaxia.

3.2. Esaldi konposatuaren sintaxia. Deskribapena: hainbat mota. Deskripzioaren objektibotasuna eta subjektibotasuna.

3.3. Ortografia.

3.4. Sinonimoak eta antonimoak.

3. ERANSKINA

BIGARREN PROBARI DAGOZKION ARIKETAK

1.-Urean aritzeko gaitasunari buruzko testa (igeriketa).

Abiatzeko jarrera: zutik, igerilekuaren kanpo-ertzean. Ezin izanen da erabili urpean igeri egiteko betaurrekorik, ezta beste baliabiderik ere, baina bai igeri egiteko betaurrekoak.

Nola egin: ateratzeko seinalea entzun ondoan, izangaia uretan murgildu eta 50 metro igerian egiten ditu, ur azalean nahiz urpean, ahalik eta denbora laburrenean. Irteeratik 10 metrora urpean egiten du igeri, bi metro, horretarako propio jarritako tartean, eta gero kontrako paretaraino segituko du, han buelta eman eta irteerara itzuliko da. Arestian aipatu tartera iristean berriz ere urpean egiten ditu bi metro, eta paretaraino segituko du gero.

Ondokoak dira kanporatzeko arrazoiak:

- a) Kortxoetan pausatu, atsedean hartu edo haietaz baliatuz bultzada hartzea.
- b) Igerilekuaren ertzean pausatu edo atsedean hartzea.
- b) Igerilekuaren hondoan bultzada hartzea.
- c) Kalez aldatzea.
- d) Urpean igeri egiteko eremuan burua ur gainera ateratzea.

Kanporatuak geldituko dira, halaber, baliorik gabeko bi irteera egiten dituztenak (ateratzeko seinalea eman baino lehen).

Kalifikazioa: egindako denborak kontuan hartuz.

-Ez gai

Gizonezkoak: 55" baino gehiago.

Emakumezkoak: 58" baino gehiago.

-Gai

Gizonezkoak: 55" edo gutxiago.

Emakumezkoak: 58" edo gutxiago.

Denbora neurtuko da ehunenak kontuan hartu gabe.

2.-Erresistentzia proba.

Izangaiek laster egin beharko dute, joan eta etorri, 20 metroko bide puska batean, magnetofoi bateko seinaleen bidez agintzen zaien erritmoan.

Izangaiek, seinalea entzutean, ibilbidearen bi muturrak seinalatzen dituzten marrak zapaldu beharko dituzte, lehenik bat eta gero bestea. Buelta emanen da oin baten gainean bermatuz eta marra zapalduz. Zintak soinua emanen du tarte erregularren arabera; probaren hasieran abiadura motela izanen da, baina gero eta azkarragoa bilakatuko da.

Testaren xedea da magnetofoiak markatzen duen erritmoari eustea.

Ondokoak izanen dira izangaia kanporatzeko arrazoiak:

- a) Izangaia gelditzea.

- b) Izangaia bere kaletik ateratzea.
- c) Izangaiak ibilbide bat bukatzeko haren muturreko marra ez zapaltzea.
- d) Seinale akustikoa entzutean marra ez zapaltzea hiru aldiz jarraian (seinalea entzuten denean, marratik metro bateko tartea onartuko da).

Kalifikazioa: bide puska zenbat aldiz egiten den kontuan harturik.

-Ez gai

Gizonezkoak: 10 baino gutxiago.

Emakumezkoak: 8 baino gutxiago.

-Gai

Gizonezkoak: 10 edo gehiago.

Emakumezkoak: 8 edo gehiago.

3.-Besoetako indarraren testa.

Abiatzeko jarrera: barratik zintzilik egonen da izangaia, besoak flexionatuta, esku ahurrak gibelerara begira, zangoak luze-luze eta oinak lurra ukitzen ez dutela. Kokotsa barraren gainetik, barra eta eskuak ukitzeke. Eskuak hutsik, eskularrurik edo beste inolako lagungaririk gabe.

Nola egin: helburua da hasierako posizioari eustea eskatutako denboran, gutxienez. Kronometroa martxan jarriko da izangaia hasierako posizioan modu egokian jarri bezain laster.

Ondokoak izanen dira izangaiak kanporatzeko arrazoiak:

- a) Izangaiak barra zein eskuak kokotsarekin ukitu edo kokotsa barra baino beheiago jaitea.
- b) Izangaiak zangoak flexionatzea.
- c) Izangaiak gorputza kulunkatzea.

Kalifikazioa: proba bukatutzat ematen den arte, izangai bakoitza hasierako posizioan egondako denboraren eta ondoko eskalaren arabera:

-Ez gai

Gizonezkoak: 40" baino gutxiago.

Emakumezkoak: 25" baino gutxiago.

-Gai

Gizonezkoak: 40" edo gehiago.

Emakumezkoak: 25" edo gehiago.

Denbora neurtuko da hamarrenak kontuan hartu gabe.

4.-Gorako jauziaren testa.

Abiatzeko jarrera: zutik "Bosco System" plataformaren barnean. Izangaiak besoak mugi ditzake eta enbor-belaunak tolestu ere bai, baina oinak mugitzerik ez du, ezta lurretik osorik nahiz apur bat bereizterik ere, jauzia egin aitzin.

Nola egin: izangaiak ahalik eta jauzi altuena egin behar du eta airean egon ahalik eta luzeen. Zutik erori behar du plataformaren barruan, oreka galdu eta errebotatu gabe.

Jauzia baliogabetuko da honelakoetan:

- a) Izangaia plataformatik kanpo erortzen denean, oin batekin edo biekin.
- b) Izangaiak plataforma ukitzen duenean oinez besteko edozein gorputz-atalekin.
- c) Izangaiak errebotatzen duenean plataformara erortzean.

Izangaiak nahi adina saio egiten ahalko ditu bi jauzi teknikoki baliagarri lortu arte.

Kalifikazioa: jauzi egitean izangaiak airean irauten duen denboraren arabera, "Bosco System" plataformak neurtzen duen bezala, hots, zatikiak ehunenetan.

-Ez gai

Gizonezkoak: 0"57 baino gutxiago

Emakumezkoak: 0"47 baino gutxiago

-Gai

Gizonezkoak: 0"57 edo gehiago.

Emakumezkoak: 0"47 edo gehiago.

Denbora neurtuko da milarenak kontuan hartu gabe.

5.-Zalutasun proba (Barrow testa).

Abiatzeko jarrera: zutik zutoinaren ondoan, irteera marraren gibelean.

Nola egin: probaren helburua da ahalik eta lasterren egitea "zortzi" baten itxurako zirkuitu bat, bost zutoinez mugatua. Horietako lauk 8,66 bider 5 metroko laukizuzen baten erpinak seinalatzen dituzte eta bosgarrena erdi-erdian dago (ikus grafikoa). Izangaiek bi aldiz egin behar dute zirkuitua, behin alde batera behin bestera (A eta B ibilbideak grafikoa).

Saio baliogabea izanen da honako hau gertatzen denean:

a) Izangaiek zutoin bat botatzen duenean.

b) Izangaia ibilbidetik ateratzen denean.

Abiadura - zalutasuna (Barrow testa)

Izangaie bakoitzak bi saio izanen ditu ibilbide bakoitzean, saioa baliogabetzat hartzen bada.

Ondokoak dira kanporatzeko arrazoiak:

a) Ibilbideetako batean (A edo B) bi saio baliogabe egitea.

b) Probarako gehienez aurreikusitako denbora gainditzea.

Kalifikazioa: izangaiek bi ibilbideetan (A + B) emandako denbora batuko da, kontuan hartuz horiek bukatzen direla izangaia irteera-marrara iristen denean.

-Ez gai

Gizonezkoak: 25"8 baino gehiago

Emakumezkoak: 27"8 baino gehiago

-Gai

Gizonezkoak: 25"8 edo gutxiago.

Emakumezkoak: 27"8 edo gutxiago.

4. ERANSKINA BAZTERBIDE MEDIKOAK

1. Ikusmena. Begien sistema.

-Zuzendu gabeko begi zolitasuna:

- 4/10 bi begietan, edo
- 3/10 begirik okerreanean eta 5/10 hoberenean, edo
- 2/10 begirik okerreanean eta 6/10 onenean.

-Ikuseremu monokularra: ezin izanen da plano horizontalean 120^o-tik beherakoa izan, eta murrizketa nabarmenik gabekoa izanen da ikuseremuko meridiano batetik bestera.

-Diplopia.

-Diskromatopsia larriak.

-Estereopsi falta.

-Keratotomia erradiala.

2. Entzumena. Entzuteko sistema:

-500dik 3.000 Hz bitarteko frekuentzietan belarriren batean 45 dB-ko edo gehiagoko galera.

-Orekari loturiko alterazioak, edozein etiologiatakoak.

3. Mintzarena:

-Afasiak, disfoniak, disfemiak (hitz toteltasuna), disartria eta diglosia iraunkorrak, polizia lanetan aritzea zaildu edo galarazten dutenak.

4. Giharren eta eskeletoaren aparatua:

- Artikulazioren baten galera anatomikoa edo ankilosia, eginkizunetarako duen eraginaren arabera.
- Prozesu artikularrak, eginkizunetarako duten eraginaren arabera, zeinahi etiologiaren ondorio direla ere.
- Eskoliosiak, 20º baino handiagoak.
- Zifosiak, 30º baino handiagoak.
- Espondilolisia, espondilolistesia, ornoen bategiteak eta ornoarteko diskoaren arazoak.
- Espondilitis ankilosantea.
- Paget-en eritasuna.
- Osteoporosia eta osteomalazia (eginkizunetarako duen eraginaren arabera).
- Fibromialgia.
- Deformazio anatomikoak, eginkizunetarako duten eraginaren arabera.

5. Digestio aparatua:

- Crohn-en eritasuna eta kolitis ultzeraduna.
- B eta C hepatitis aktiboa izatea edo birusaren eramailea izatea.
- Gibeleko gutxiegitasuna, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.
- Gibeleko zirrosia.
- Behazun-zirrosi primarioa.
- Pankreatitis kronikoa.
- Fibrosi kistikoa.
- Sabelaldeko paretako etena, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.
- Hesteetako jarioa.

6. Bihotz-hodietako sistema:

- Bihotzeko gutxiegitasuna, maila guztietan.
- Arritmiak eta blokeoak: aurre-eszitazio sindromea eta bihotzaren erritmoaren edo kondukzioaren alterazio mota guztiak, salbu eta arritmia sinusala, BGE edo BE solteak, 1. mailako blokeo AB, Eskuineko Adarraren Blokeo Osoa eta Ezkerreko Adarraren hemiblokeoak.
- Kardiopatia iskemikoa, maila guztietan.
- Balbulopatiak.
- Miokardiopatiak.
- Perikardiopatia kronikoak.
- Biriketako hipertentsio primarioa eta sekundarioa.
- Arterietako iskemia kronikoaren sindromea.
- Arterietako hipertentsioa (TAS > 140 eta TAD > 90).
- Arterietako hipotentsioa (TAS < 90 eta TAD < 45).
- Zainen eta baso linfatikoen gutxiegitasuna.

7. Arnas-aparatua:

- Arnas aparatua afekzio kronikoak (Bronkitis kronikoa, BBEK, Enfisema, Bronkiektasiak).
- Pleurako isuri berrituak.
- Berezko pneumotorax berrituak.
- Eritasun interstizialak eta/edo biriketako fibrosia.
- Asma eta bronkioetako hipererreaktibotasuna.

8. Nerbio sistema:

- Epilepsia.
- Esklerosi anizkoitza eta bestelako eritasun desmielinizanteak.

- Neurona motorearen eritasunak.
- Ataxiak.
- Buruko eta integrazio funtzioen alterazioak (arrazoitze abstraktoa, oroimena, adimena eta funtzio betearazleak).
- Parkinson-en eritasuna eta bestelako alterazio estrapiramidalak.
- Odol-hodien afekzio iskemikoak, hemorragikoak edo malformazioen baten ondoriozkoak.
- Miastenia larria eta juntura neuromuskularraren bestelako arazoak.
- Bertigoak.
- Siringomielia.
- Hidrocefalia.
- Miopatiak.
- Nerbio-sistema zentralaren lesioaren ondoriozko paralisia.
- Perlesia periferikoak, funtzioetan duten eraginaren arabera.
- Nerbio-sistema periferikoaren eritasunak, funtzioetan duten eraginaren arabera.
- Neke kronikoaren sindromea.
- Anosmia.
- Beste alterazio motore batzuk (tikak, estereotipia motoreak, loaren alterazioak), giza harremanetan eta lanean izan dezaketen eraginaren arabera.

9. Alterazio psikiatrikoak:

- Buruko alterazio organikoak, prozesu automugatuak eta itzulgarriak kenduta.
- Buruaren eta jokabidearen alterazioak, substantzia psikotropikoen kontsumoaren ondoriozkoak (alkohola barne).
- Eskizofrenia eta bestelako alterazio psikotikoak.
- Gogo-aldartearen alterazioak (jokabide bipolarrak, alterazio depresibo errepikariak, depresioaldi larria, alterazio distimikoak).
- Antsietate-alterazioak, ondorio kliniko nabarmena baldin badute.
- Barne-bultzaden kontrolaren eta izaeraren alterazioak, giza harremanetan eta lanean eragina dutenak.

10. Sexu eta gernu-aparatua

- Giltzurruneko gutxiegitasuna, bilakaera eta pronostikoaren arabera.
- Gernu jarioa.
- Giltzurruneko polikistosisa.

11. Sistema endokrinologikoa:

- Ardatz hipotalamo-hipofisarioaren alterazioak.
- Hipertiroidismoa eta hipotiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Addison, Cushing, feokromozitoma eta giltzurrunen gaineko guruinen bestelako alterazioak.
- Hipoaldosteronismo primarioa eta sekundarioa.
- Mellitus diabetesa.
- Adenomatosi endokrino anizkoitza.
- Hipoparatiroidismoa eta hiperparatiroidismoa, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.

12. Larrua, fanerak eta guruin exokrinoak:

- Orbainak eta azalaren prozesu kronikoak, baldin eta haien hedadura, funtzioetan izan dezaketen eragina eta kokapena ikusirik, polizia lanetan aritzea eragozten baldin badute.

13. Odola eta organo hematopoietikokoak:

- Muineko aplasia, gaueko hemoglobinuria paroxistikoa, sindrome mieloproliferatiboak, anemia hemolitiko kronikoak, β -talasemia anemiadunak.

- Linfomak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Sindrome linfoproliferatibo kronikoak, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Mieloma anizkoitza eta Waldeström-en eritasuna.
- Hemofiliak eta hemostasiaren bestelako alterazioak.
- Inmunoeskasiak.
- Esplenektomia.
- Antikoagulatzaileak (Heparinak, Sintrom), Interferon, kortikoideak edo EPO erabiltzen dituzten tratamendu kronikoak.

14. Bertzelakoak:

- GIB birusaren antigorputzen eramailea.
- Amiloidosia.
- Kolagenosia.
- Lupus eritematoso sistemikoa.
- Artritis erreumatoidea.
- Esklerodermia.
- Sjögren-en sindromea.
- Baskulitisa, ebaluazio mahaiak baloratu beharrekoa.
- Obesitatea (GMI > 25).

15. Orokortasunak:

- Ebaluazio mahaiak baloratuko ditu baztertzeko moduko patologiak, funtzioetan duten ondorioen arabera eta polizia lanetan aritzeko pronostikoaren arabera.
- Prozesu neoplasikoetan eta organoen transplanteen kasuetan, ebaluazio mahaiak gaitasuna baloratuko du, bilakaeraren eta pronostikoaren arabera.
- Funtzioetan eragina duten gorputzeko bestelako aparatu edo sistemetako afekzioak, balorazio mahaiaren iritziz, polizia lanetan aritzea eragozten baldin badute.

Antsoainen, 2009ko urriaren 7an.-Alkate udalburua, Antonio Gila Gila.

Iragarkiaren kodea: L0923938